## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA KULTURA SAILA

## 5523

1995/517 DEKRETUA, abenduaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Administrazioen hizkuntza normalkuntza prozesuaren jarraipenerako zenbait neurri ezartzen dituena.

Euskararen erabilpena arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 14. atala eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Idazpurua garatzeko Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-administrazioen hizkuntza-normalkuntzaren plangintza araupetzen duten zenbait arau eman dira, Autonomi Estatutuan ezarritako euskararen ofizialkidetasunaren mandatua betetzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan Euskararen erabilera normaltzeko plangintza arautzen duen urriaren 17ko 224/1989 Dekretuak eta euskal herri-administrazioetan euskararen erabilpenaren normalkuntzarako prozesua ezartzeko zenbait neurri ezartzen dituen abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak euskal herri-administrazioetan euskararen erabilpenaren normalkuntzarako prozesuaren ildo nagusiak zehaztu dituzte.

Autonomi Elkarteko herri-administrazioen hizkuntza-normalkuntza prozesuaren lehen plangintzaldia 1995eko uztailaren 30ean bukatu ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak aurkeztu dio dagoeneko Jaurlaritza Kontseiluari plangintzaldiaren ebaluazio-txostena. Honen azterketa, analisi eta konparaketak bigarren plangintzaldiari dagozkion zehaztapenen ezarpena ekarriko du etorkizunean.

Aipatutako bigarren plangintzaldiaren zehaztapenak ezarri eta plangintzaldi hori hasten ez den artean, zenbait neurri hartu beharra dago prozesuari jarraipena eta beharrezkoa den ziurtasun juridikoa bermatzeko, horretarako lehen eta bigarren plangintzaldiaren arteko behin-behineko aldiaren eraentza finkatuz.

Ondorioz, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 8.b) atalean xedatzen dena betez Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak emandako txostena ikusi ondoren, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko abenduaren 19an egin duen bilkuran hori guztia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Bigarren plangintzaldiaren arauketa onartu eta aldi horri hasiera eman artean behin-behineko aldi bat ezartzen da. Behin-behineko aldi honetan ezarri beharreko eraentza juridikoa Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren lehen plangintzal-

## DEPARTAMENTOS DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y DE CULTURA

## 5523

DECRETO 517/1995, de 19 de diciembre, por el que se articulan diversas medidas provisionales para la continuidad del proceso de normalización lingüística de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En desarrollo del artículo 14 la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, y del Título V de la Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca, se dictaron diversas normas reguladoras de la planificación de la normalización lingüística de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, al objeto de cumplir con el mandato estatutario de cooficialidad lingüística del euskera y salvaguardar los derechos lingüísticos de los ciudadanos.

El Decreto 224/1989, de 17 de octubre por el que se regula la planificación de la normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca y el Decreto 238/1993, de 3 de agosto, por el que se articulan diversas medidas para la aplicación del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas han determinado las líneas maestras del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas.

Finalizado el primer periodo del proceso de planificación de la normalización lingüística de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma el 30 de julio de 1995, la Viceconsejería de Política Lingüística ha elevado ya al Consejo del Gobierno su informe de evaluación, de cuyo estudio, análisis y contraste resultará en su día el establecimiento de las determinaciones correspondientes al segundo periodo de planificación.

En tanto no se establezcan las determinaciones correspondientes al referido periodo y se dé comienzo al mismo, procede articular diversas medidas para garantizar la continuidad del proceso y dotar al mismo de la necesaria seguridad jurídica fijando el régimen que debe regir el período transitorio entre el primer y segundo periodo de planificación.

En su virtud, visto el informe que en cumplimiento del artículo 8.b) de la Ley 6/1989, de 6 de julio ha emitido el Consejo Vasco de la Función Pública, a propuesta conjunta del Consejero de Hacienda y Administración Pública y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 19 de diciembre de 1995,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* En tanto no se apruebe la regulación del segundo periodo de planificación y se dé comienzo a dicho periodo, se establece un periodo transitorio en el cual será de aplicación el régimen jurídico correspondiente al primer periodo de planificación de la normalización del uso del Euskera en las Administraciones

diaren berbera izango da, ondorengo ataletan zehazten diren berezitasunekin.

*2. atala.*– Behin-behineko aldian derrigorrez betebeharreko ehunekoa Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan Euskararen erabilera normaltzeko plangintza arautzen duen urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren Aldibaterako Lehenengo Xedapenean lehen plangintzaldirako ezarritakoa izango da. Aipatutako ehunekoa herri-administrazio bakoitzaren lurralde-eremuari dagozkion 1986ko Erroldan jasotako datuen arabera kalkulatua izango da.

*3. atala.*– Behin-behineko aldi honetan lanpostuzerrendak egoki osatzea ahalbidetzeko, ezarri beharreko derrigortasun berrien datak Dekretu hau indarrean sartu eta bost urteko epearen barruan finkatu beharko dira. Bigarren plangintzaldia hasi ondoren, bigarren plangintzaldiaren barruan gerta daitezkeen derrigortasun-datak bigarren plangintzaldikoak bezala hartuko dira.

*4. atala.*– Euskal herri-administrazioetan euskararen erabilpenaren normalkuntzarako prozesua ezartzeko zenbait neurri ezartzen dituen abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuaren Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren idazketa aldatu egiten da eta honakoa ematen da:

«*Zortzigarrena.*– Bigarren plangintzaldia hasi baino lehen lortutako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Hizkuntza Eskola Ofizialeko gaitasun-agiria, Labayru Ikastegiak emandako ziurtagiria, hiru horiek eta 3. hizkuntza-eskakizuna baliokidetzat hartzen dira. Horretarako, interesa dutenek beharrezko agiriak aurkeztuko dizkiote bakoitzak bere administrazioari.»

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indargabetuta gelditzen dira.

*Bigarrena.*– Euskal Herrko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko abenduak 19.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco con las particularidades determinadas en los artículos subsiguientes.

*Artículo 2.*– En el periodo transitorio será de aplicación el índice de obligado cumplimiento establecido para el primer periodo de planificación en la Disposición Transitoria Primera del Decreto 224/1989, de 17 de octubre, por el que se regula la planificación de la normalización del uso del Euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, calculado a partir de los datos del Padrón de 1986 correspondientes al ámbito territorial de actuación de cada Administración Pública.

*Artículo 3.*– A fin de posibilitar la correcta elaboración de las relaciones de puestos de trabajo en este periodo transitorio, las fechas de las nuevas preceptividades que deban asignarse se fijarán a los puestos de trabajo a los que correspondan dentro del intervalo de cinco años contados desde la entrada en vigor de este Decreto y, una vez comenzado el segundo periodo de planificación, serán computables como preceptividades correspondientes a tal periodo aquellas cuya fecha recaiga dentro del segundo periodo de planificación.

*Artículo 4.*– Se modifica la redacción de la Disposición Adicional Octava del Decreto 238/1993, de 3 de agosto, por el que se articulan diversas medidas para la aplicación del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas, quedando redactada de la siguiente forma:

«*Octava.*– El Certificado de Aptitud del conocimiento del Euskera EGA, el grado de aptitud de la Escuela Oficial de Idiomas, así como el certificado otorgado por el Instituto Labayru que se obtengan antes del inicio del segundo periodo de planificación y el perfil 3, quedan convalidados. Para ello los afectados presentarán ante la Administración correspondiente la documentación precisa.»

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Quedan derogadas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.